

B

BARREN

TOKIKOM



Euskal Herriko Itzulia Elgoibarren



Eskertzak eta urteurrenak

ESKERTZAK



**SABIN ARRIETA
BARRENETXEA**

eta

**JESUS ARRIETA
BARRENETXEA**



*2013ko otsailaren 13an hil zen,
85 urte zituela.*

*2013ko martxoaren 14an hil zen,
Marbellan, 79 urte zituela.*

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.

I. URTEURRENA



MARIA LEYARISTI GARATE

2012ko martxoaren 25ean hil zen, 87 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, martxoak 23,
arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.

Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



ESKERTZA



JOSE ZABALA JUARISTI

2013ko martxoaren 16an hil zen, 87 urte zituela.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





Angel Ugarteburu

Irakurle apurrei barre eragin nahi eta ezin, Andres! Kili-kili eginda ere ez jok inork barrerik egiten. Behin, umetan, hezur bat karraskatzen zebilen etxe-ko kate-txakurrari buruan igurtzi egiten hasi, eta haginka egin zidanean ikasi

najoan igurtziak ere bere unea duela, ez noiznahi eta edonori. Gutxiago, igurtzia bera baino premia larriagoak daudenean.

Txistek asmatzen hasi behar dugunik ere ez joat, Andres, uste. Umore tanta batekin, barre pixka bat egiteko aukera asko jagozak, egia esan.

“Era eta eduki askotako lapikoak gabiltzak munduan, Andres”

Zenbat asmo, etsipen, amorrazio eta itxaropen borborka bakoitzaren lapikoan irakiten! Ze, lapikoak gaituk, Andres! Ingelesek *body* erabiltzen joek gorputza nahiz karrozeria adierazteko. Lapiko horixe duk gure abildade eta kalamidade guztien muga. Batzuk lapikohandi eta bestetzuk lapikotxiki. Lapikotxikiek kabida txikia izaten juek eta barruko lurrinak laster jartzen jok haien tapatxoa dantzan, tip-tip-tip-tip. Lapikohandiek, kabida handia eta tapa astuna, barruan gordetzen joek gazi-goza gehiena. Urtean behin edo, eztanda egin, eta bapo. Orduan aparta haien paretik. Lapikotxiki izatea hobe osasunarentzat.

Era eta eduki askotako lapikoak gabiltzak munduan: berba-lapiko, tontolapiko, gezur-lapiko, puzkar-lapiko. Lapiko-feria ederra eta zabala. Ikuskizun horrekin bajoagu nahikoa zirko. Berba-lapiko gehienak gezur-lapiko ere badozak eta puzkar-lapiko ere bai, ziurrenik. Birtartean, gu tontolapiko, zulo guztietatik darien kiratsa jasanez. Barre-lapiko izanez emango jeutsieguk ordaina. Hala merezi joek.



Andres Alberdi

Artikulu polita, Angel. Bai hasieran, txakurrarenean, bai segidan, lapikoarenean. Ez duk metafora txarra erabili duana. Lapikoak gaituk, beraz. Txiki edo handi, baina lapikoak azken batean (dena den, ez al dago lapiko espresik, presio-eltzerik?, ze zerbait izatera, gehienok horietakoak garela uste baitu nik).

Eta denok ere tontolapikoak, gainera. Edota, hire zerrendari segiz, kaiku, babalore, babo, inozo, kirten, ments, kokolo, mozolo, pepelerdo, tentel, astapito, txolin, koko... ; edo, neska izatera, tuntunpa(d)ela, zanpan, ttuntun, zuntzun, memela... Euskarak ez omen dlk, hi, aberastasunik!

Horrela har ez gaitzaten duk kontua, hala ere. Eta kontrako antidoto gisa, barre-lapiko izatea proposatzen duk. Ez duk ideia txarra (nahiz ez den erraza betil). Aste honetan izan diagu, nolana ere, poz-lapiko izateko zoria (joan zen astebukaerako Elgoibarko Izarraren 50. urteurrena, Korrikaren ospakizuna...), baina, oro har, inguruan gauzak nola dozen ikusita, ezin ukatu gehienetan kosta egiten dela filosofia horrekin jokatzea.

“Ez al dago lapiko espresik? Ze zerbait izatera, gehienok horietakoak garela uste dut”

Hire gomendioari jarraiki, barre-lapikoarena egiteko, honatx asteburuan entzundako pasadizo bat: Txitxardinak edo angulak gure ibai-erreketan ugaltzeko, haien kumeak bota omen dituzte azken hilabeteotan haietan. Azken uholdeetan, ordea, Azkoiti aldean, angulak behera egin beharrean, gora egin omen ziatean errekan. Gora egite horretan, Illarraga erro-taraino iritsi omen zituan atseden ustez, baina han ez omen ziatean luze irauteko zoririk izan, baserriko oiloen oturuntza bihurtu baitziren angula gai-xuak.

Lapikoekin hasi garenez, lapikoekin bukatzea komeni gaurkoa, Angel: zer gustu izango ote dute lapikoan Illarragako oilo horiek?

Jarri ezazu zure publizitatea

barren.publi@elgoibarkoizarra.com

B

BARREN
astekarian
943 744 112



Kaleratzeen Kontrako Taldeak salatu du Udalak ez daukala etxea galtzeko arriskuan daudenei laguntzeko interesik

Etxe kaleratzeen kasuetan jarraitu beharreko protokoloa baduela erantzun du Udalak

Etxea galtzeko arriskuan dauden herritarrei laguntzeko mozioa aurkeztu dute Etxe Kaleratzeak Stop Debarrena taldeko kideek Elgoibarko Udalean, eskualdeko gainerako udaletxeetan egin duten bezalaxe. Herri gehienetan lankidetzarako bideak jarri dituzte abian, baina Udalak gai honen gainean "interes falta" erakutsi duela salatu dute taldeko kideek. Azaroan antzerako mozio bat onartu zutela erantzun die Udalak, eta gai berari buruzko bi mozio ez direla beharrezkoak gaineratu dute. Bi aldiz saiatu dira mozioa Udalean aurkezten, eta bietan ezezko erantzuna jaso dute Stop Debarrenakoek. Udalak kaleratze arriskuan dauden persona eta familiak informatu ditzan eta kaleratzea gelditzeko aholkuak eman ditzala eskatzen du taldeak, eta baita larrialdietarako baliabideak aktiba ditzala kaleratuak diren familiei laguntzeko. Euren iritziz, azaroan Udalak onartutako mozioan puntu horiek falta dira.

Alfredo Etxeberría alkatearen arabera, azaroan onartutako mozioan hori guztia jasota dago, eta Gizarte Ongizate Sailaren oinarriko zeregina kaltetuak informatzea dela azaldu du. Etxe kaleratzeak ez direla gaurko kontua eta kaleratzeak beti egon direla gaineratu du Etxeberría, eta Udalak baduela kasu horiei erantzuteko protokoloa. Horrez gain, Debarrenako Kaleratzeen Kontrako Tal-



dearei leporatu dio komunikabideetara jo izana Gizarte Ongizate Sailarekin harremanetan jarri aurretik.

Menpekotasun Zerbitzuaren gaineko Aldundiaren plana geratzeko eskatzen duen mozioa onartu du Elgoibarko Udalaren Osoko Bilkurak

Foru Aldundiak Menpekotasun Zerbitzuaren gaineko plan bat prestatu du, eta Elgoibarko EAJK plan hori geratzeko eskatzen duen mozioa aurkeztu zuen martitzeneko Osoko Bilkuran. EAJren iritziz ezin dira zaharren egoitzen eta etxez-etxe-ko arreta zerbitzuaren gaiak nahastu, eta bakoitza bere aldetik negoziatu beharko litzatekeela defendatu du. EAJ, PSE-EE eta PPren aldeko botoekin onartu zuten mozioa. Bilduk kontra bozkatu zuen.



Igogailuaren erabilera okerrak eragindako gastuak kaltegileei ordainaraziko dizkie Udalak

Osasun Zentrotik San Rokera doan igogailua matxuratuta egon da hiru egunez, adingabe batzuek oker erabili dutelako. Joan zen zapatuan, 21:30ak aldera gertatu zen guztia. Adingabeen koadrila bat San Rokeretik jaisteko sartu zen igogailuan. Botoiari eman zioten, baina ez zioten ateari ixten laga, eta behin eta berriz errepikatu zuten jokabide berbera. Atea itxi bezain pronto, saltoka hasi ziren eta igogailua blokeatu egin zen lehenengo solairura iristean. Ordubete inguru egin zuten gazteek igogailuan, teknikaria etorri zen arte. Konponketa lanengatik 1.994 euroko faktura jaso du Udalak, eta kaltegileei ordainaraziko die. Igogailuan dauden bideo kamerei esker adingabe horiek identifikatu ditu Udalak, eta kalteordainak ordainaraziko dizkie.

Irudia **Urteko lehen umea**



Urtarrilaren 5ean jaio zen Ander Garate Oso-ro, eta bera izan zen 2013an jaiotako lehen elgoibartarra. Azken urteotan bezalaxe, EAJK oparia egin dio. Inga Segurola EAJKo presidentek eman zien oparia Aitor eta Nerea gurasoei. Arreba Olatz ere ageri da erretratuan.

Izena **'Parot doktrina'**

Parot doktrinaren kontrako mozioa onartu zuen martitzenean Elgoibarko Udaleko Oso-ko Bilkurak. BilduElgoibarrek aurkeztu zuen mozioa, eta EAJK alde bozkatu zuen. PPK eta PSE-EEK, berriz, ezetza eman zuten. Eguaztenean hasi zen Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegian Ines del Rio presoaren gaineko epaiketa, Parot doktrina edo 197/2006 doktrina delakoaren ingurukoa. Ines del Rioren abokatuen taldeko Mark Mullerrek argudiatu zuen preso baten zigorra aldatzea giza eskubideen aurkakoa dela eta azaldu zuen Parot doktrinak zigorrak luzatzen dituela eta neurri horrek ez dituela "kalitate azterketak" gainditzen.

Irudia **Agur Garagartzako beste bi etxeri**

Mendaroko Garagartza auzoa ez da garai batean zena. Joan zen astean, garai bateko beste bi etxe eraitsi zituzten, Manuel Bidaburukoa zenaren etxea eta Antzarkua, eta ilara horretan, etxe bakar bat gelditzen da orain tente: Txikitxonekoa [Gartzianekoa botata zuten aurrez]. Itxuraldatzen ari da auzoa, baina oraindik tente eusten diote Mendaro zaharreko eraikin batzuk: Barberonekoa, Moxuanekoa, Artetxe, Antonanekoa, Eliz-aurre, Armuno, Linanekoa, Kontxanekoa, Gabixolanekoa, Txoperranekoa, Abarkaronekoa, Mateonekoa, Jazintanekoa eta Kotxerokoa.



Lapurreta egin dute Elgoibarko haurreskolan

Eguazten goizaldean lapurretan egin zuten Elgoibarko haurreskolan. Goizean lanera iritsi zen aurreneko langilea jabetu zen gertatutakoaz. Lerro hauek idazteko unean, asteazken goizean, inbentarioa egiten ari ziren, lapurrek zer gauza eraman zituzten jakiteko, baina langileek bi argazki kamera, bi deo kamera eta ordenagailu eramangarria falta zitzaizkiela ziurtatu zuten. Haurreskolako langileek salaketa jarri zuten eta ertzainen esku dago orain kasua.

Zapatuetan, 16:00etatik aurrera, ez da trenik geldituko Toletxegainen

Elgoibarko Udalak egindako eskaera aintzat hartu du Euskotrenek, eta aurrerantzean, zapatuetan ez da trenik geldituko Toletxegainen, 16:00etatik aurrera. Seguratsun neurriengatik hartutako erabakia izan da. Zapatuetan inguruko herrietatik datozen adingabeak kontrolatuago izateko hartu dute erabakia bereziki.

Emugiko bizikleta elektrikoak ikastetxeei utzi dizkie Udalak

Emugi egitasmoa bizikleta elektrikoaren mailegu zerbitzuak ez duela behar bezala funtzionatu onartu du Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkateak. Hortaz, Udalak dauzkan hamabost bizikleta elektrikoetara aterako dira, herriko ikastetxeei lagako dizkiete dozena bat bizikleta. Edonola ere, gainerako hiru bizikletek Kalebarren plazan jarraituko dute herritarren zerbitzura, eta, gainera, haien ondoan elektrikoak ez diren bizikletak ere jarriko ditu aurki Udalak.

Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA**, **ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzikunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,
Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil HIZKUNTZA
ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA
Leire Rubio MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue
KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel
Ugarteburu, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai
Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus
Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes
Rodríguez, Majalen Arnedo, Ainhoa
Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga,
Amaia Larrañaga, Danele Sariugarte, Mikel
Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-
1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia



GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Merezi zaban, bai!

1963an, Elgoibarko kaleetan euskararik apenas entzuten zenean, merezi izan zuen Elgoibarko Izarra sortzea. 2013an, berriz, Elgoibarko euskalduna izateko 50 urteko herri-ahaleginaren ondoren, merezi izan du Elgoibarko Izarraren 50. urteurrena ospatzea. Ospatzeko modukoa dela-ela elkarrekin egin duena.

Elgoibarko Izarrak, baina, ez du bakarrik egin 50 urteotako bidea. Beti izan du jendea inguruan. Beti egon da bateren bat laguntzeko prest. Beti izan da Elgoibarko Izarrarekin bat egin duenik. Horiei denei esker ere iritsi da Elgoibarko Izarra honaino.

Eta asteburuan ere jende asko egon da Elgoibarko Izarraren aldamenean. Herriko Antzokira azaldu zineten bazkide eta herritarrak; Herriko Antzokiko oholta gainera igo zineten sortzaile eta kultur gileak; ostiral gaueko afaria prestatu zenuten sanmigeldarrak; Maalako karpako barran eta sukaldean lanean jardun zenuten guztiok; Arrasatetik, Soralezetik edo Eibartik jan-edanak zerbitzera etorri zineten euskaltzaleok; karparako musika-ekipoa laga eta prestatu zenuten Sugar, Iñaki eta Ander; oraingoan ere gurekin izan zireten Udala eta Udal Brigadako langileak; ostiral gauean gurekin batera kantuan jardun zenuten Kale Kantariak; karpa berotzen lagundu zeniguten *Mahats* tabernakook; Xabi, Maite, Iñaki, Lutxi, Iñigo, Julen ... Asteburuan zuen denon babesa eta laguntza jaso dugu. Eskerrik asko, denoi.

Hau hasi baino ez da egin. Urtean zehar beste hamaika kontu izango da Elgoibarko Izarrak Elgoibarri eman diona ospatzeko. Eta asteburuan moduan, nahiko genuke zuek gure inguruan izatea. Zuek aldamenean izanda gehiago garela sentitzen dugulako. Zuek gurekin egonda indartsuagoak sentitzen garelako. Denok bat eginda, lehenago eta errazago lortuko dugulako gure herria euskalduna izatea.

Elgoibarko Izarra Kultur Elkartea

AEK euskaltegiak Korrika zaleei eskerrak

'Hemen gaude euskararen alde' / 'Ika-ika Korrika' / 'ari-ari eman euskara elkarri' / 'hemen gaude AEKren alde' ... hauek eta beste hainbat oihukatu genituen eguazten iluntzean errepidean zein kaleetan zehar. Zelako jendetza, zelako zi-

rrara, zelako giroa... Ez daukagu hitzik azaltzeko. Mila esker.

Oraindik ere herenegungo poza, zirrara, ardua, emozioa... barru-barruan ditugula, eta igandean Baionan bizi izango ditugun (gogoan izan autobusa izango dela bertaratzeko) beste hainbat falta zaizkigun arren, AEK euskaltegiok eskerrak eman nahi dizkizuegu Elgoibarren Korrika 18 hau horren arrakastatsua egitea ahalbideratu duzuen guztioi: dela "laguntzaile txartela" eginda, dela "korrika lagun" aportazioa eginda, dela KMa hartuta, dela arropa erosituta, dela Korrika Txikia eta Gaztea antolatuta... eta nola ez, horren bihotz onez lagun izan ditugun Ane, Arantxa, Mautitza txarangakoak, Isa, Jokin, Asima aroztegia eta AEK euskaltegioko hainbat ikasle: Pilar, Marta, Olga, J.Luis, Dani, Alaitz... baita Udalari ere, bereziki Euskara Sailari, korrika egindako txaloak jotzen jardun zenuten guztioi ere, denon artean lortu da-eta, lortutakoa.

Baina, egunero jarraitu behar dugu euskara elkarri ematen, bai berba eginez, bai idatziz, bai irakuriz, bai entzunez, eta jakizue honetarako zailtasunak dituzuenok AEK euskaltegiak ateari zabalik dituela, bakoitzaren beharrak eta nahiak asetzeko eskolak ematen ditugulako. Eta dagoeneko honetan diharduzuenoi, Korrika 18k omendu zaituztenoi, berriro ere, zorionak.

Elgoibarko AEK

OHARRA

Aste Santuko oporraldia dela-eta, datorren barixakuan ez dugu **BARREN** kaleratuko. Hurrengo alea apirilaren 5ean jasoko duzue. Datorren astean, bestalde, **BARREN**eko bulegoa goizez bakarrik egongo da zabalik.



53 Euskal Herriko Itzulia Uuelta al País Vasco



Elgoibar-Elgoibar, 2013ko apirilak 1
Elgoibar-Gasteiz, 2013ko apirilak 2


ELGOIBARKO ETAPAREN BABESLEAK ETA LAGUNTZAILEAK




ELGOIBAR ABIAPUNTUA

Euskal Herriko Itzulia Elgoibarren hasiko da Pazko Asteko astelehenean, apirilaren 1ean, 13:15etan. Elgoibarren hasi eta bukatuko da aurreneko etapa, eta biharamunean, hemendik irtengo dira txirrindulariak Gasteizerantz. Eguazten iluntzean edizio hau ixteko orduan, itzal handiko txirrindulari batzuren parte-hartzea ziurtatua ez zegoen arren, gauza jakina da aurten ere punta-puntako tropela batuko dela.

Hemen izango dira, adibidez, azkeneko bost urteotan podiuma zapaldu dutenetako asko, tartean Samuel Sanchez iazko irabazlea, Alberto Contador, Chris Horner, Bauke Mollema eta Joaquin Rodriguez.



Ainara Argoitia

Zorionekoak dira txirrindularitza zaleak. Azkenekoz, 2002ko apirilaren 12an egin zuen geldialdia Euskal Herriko Itzuliak Elgoibarren. Orduko hartan Aitor Osa itziartarrak irabazi zuen Itzulia eta David Etxeberria abadiñarra gailendu zen Elgoibarren, egun hartan jokatu ziren bi sektoreetan. Ikuskizunik ez da faltako aurten ere, eta itzuliaren sokara batu ohi den jendetza aurreikusita, dela antolakuntzako zein bestelakoa, trafikoan hainbat aldaketa egongo direla ohartarazi du Elgoibarko Udalak. Hona hemen, hainbat jakingarri:

- **Taldean aurkezpena:** Apirilaren 1ean egingo da, 12:00etatik 13:00etara, Kalegoen plazan.
- **Irteera:** Bai hilaren 1eko etapa eta baita hilaren 2ko etapa ere 13:15ak abiatuko dira, Txankakoako zubitik.
- **Etapa amaiera:** Apirilaren 1eko etapa, Itzuliko aurrenekoa, Elgoibarren hasi eta bukatuko da. Txirrindulariak 17:00ak aldera iritsiko dira. Helmuga Pedro Migel Urruzuno kalean egongo da, Banco Guipuzcoanoren aurrean.
- **Sari banaketa:** San Frantzisko iturri ondoan.
- **Trafikoaren inguruko oharra:**
 1. **Bernardo Ezenarro kalea eta Aita Agirre plaza:** Martxoaren 31ko goizeko zortziretarako auto guztiak erretiratu beharko dira Aita Agirre plazatik eta Bernardo Ezenarro kaletik (bigarren zenbakitik zortzira bitartean). Etapa amaitu bezain laster, Bernardo Ezenarro kalea libre la-


gako dute aparkatzeko, baina ez Aita Agirre plaza. Aita Agirren ezingo da aparkatu biharamunera arte.

2. **Trenbide kalea:** Martxoaren 31n eta apirilaren 1ean ezingo da Trenbide kalean aparkatu, 14:00etatik aurrera. Hilaren 31n, itzulia aurkeztu bitartean, txirrindularitza taldeetakoentzat eta antolakuntzakoentzat gordeko dute leku hori. Hilaren 1ean, berriz, etapa amaitu osterarte egongo da galarazita hor aparkatzea.

3. **Iñigez Karkizao eta Gabriel Kurutzelaegi:** Hilaren 1ean 9:00etatik etapa amaitu arte ezingo da bi kale horietan aparkatu, txirrindularitza taldeetakoentzat gordeko dituztelako bi kale horiek. Hilaren 2an, berriz, 9:00etatik lasterketa abiatu arte egongo dira itxita.

4. **Pedro Migel Urruzuno eta Aita Agirre:** Martxoaren 30eko 19:00etatik apirilaren 1eko 19:00ak arte trafikoarentzako itxita egongo dira, salbu garajea dutenentzat.

5. Hilaren 2an 10:00ak arte **San Frantzisko eta San Ana** kaleak zabalik egongo dira zamalanetarako, ez ordea Errosario kalea, San Bartolome kalea eta Kalegoen plaza. Horiek astearte arratsaldera arte egongo dira itxita.



Apirilaren 1eko etaparen perfila eta iazko etapako argazkia.

SAMUEL SANCHEZ

Podiumeko gorengo mailara igo zen iaz Samuel Sanchez Euskalteleko txirrindularia, eta aurten sasoirik onenean iritsiko ez dela aitortu arren, iazkoa errepikatzen saiatuko dela esan du.


“Euskal Herriko Itzuliak asko eman dit niri”

Giroan parte hartuko duzu. Beharbada horregatik ez zara %100ean iritsiko Euskal Herriko Itzulira. Zer asmorekin zatoz, hala ere?

Forma onean iritsiko naiz, baina ez 2012an bezain sendo. Azkeneko edizioko irabazlea, naiz eta lasterketa hau denboraldiko garrantzitsuetako bat da, bai niretzat eta baita taldearentzat ere, beraz papel duin bat egitea tokatzen zaigu. Eta horretarako, sasoi onean egon beharra dago. Lehiakorra izango naiz, baina maiztzean %100ean egon nahi badut, ezin naiz orain nire onenean egon.

Tirreno jokatu eta hurrengo astean Giroko etapak ikusten izan zara. Nolako dator aurtengo Giroa?

Ikaragarri gustatzen zaidan lasterketa da Giroa. 2005ean izan nintzen eta liluraturatuta itzuli nintzen. Kirol kontuengatik aurten arte ez dut beste aukerarik izan, eta oso pozik nago. Etapa batzuk irabazi ditut, podiumak egin ditut Tourrean zein Vueltan, baina Giroa falta zait. Hiru itzuli nagusietan etaparen bat irabazteko erronka hori daukat. Ilusio handiz nago, egia esan. Egun hauetan ikusi ahal izan dudanez, Giroa ez da aldatu. Mendate mitikoetan ibiliko dira, etapa menditsuak gainditu be-



harko ditugu, etapa oso gogorak, eta beraz, emozioa ziurtatuta dago azkeneko egunera arte.

Prentsa espezialduak dio ibiltzeko modua aldatu duzula eta beharbada orain gehiago gordeko dituzula indarrak. Zer diozu?

Txirrindulari gisa eboluzio bat izan dut. Gaztea zarenean trebezia batzuk izaten dituzu eta eskarmentu apur bat ere bai, baina nagusitzen



goazen heinean, ikasten goaz. Indarrak gorde behar ditudanean gorde egiten ditut, eta erasoak jo behar dudanean, jo egiten dut. Hori bai, egia da orain beste modu batean egiten dudala. Beharbada, eragin-kortasun handiagoa bilatzen dut. Nik esango nuke buru gehiagorekin jokatzen dudala urteetan pilotutako eskarmentuagatik eta, beharbada, nire sentsazioak ere hobeto interpretatzen ditudalako orain.

Euskaltelek talderik onena ekarriko du ohi legez, eta tartean izango dira Izagirre anaiak, proiektio handiko txirrindulariak. Presio guztia zuengan jausiko da, eta bereziki zugaran, taldeburua eta iazko irabazlea zaren neurrian. Nola daramazu?

Norberak bere buruari jartzen dion presioa baino ez dago hemen. 24 orduz naiz profesionala. Badakit nire atsedendialdiak zaintzen, eta baita elikadura eta entrenamenduak zaintzen ere. Kontzentrazioak direla eta lasterketak direla, urtean 180 egun baino gehiago egiten ditut etxetik kanpora, emaztea eta bi semeak etxean lagata. Hori dauka txirrindulari izateak, eta gehien maite dudana hori sakrifikatzen badut, lasterketan derrigor eman behar dut nire onena. Hori da nire buruari egiten diodan presioa. Kontziente naiz ditudan arduretaz eta inolako arazorik gabe egiten ditut nire. Etorriko zaie Gorka eta Joni ere hori, talentu handia dutelako, baina orain eboluzionatzen eta txirrindulari gisa hazten laga behar zaie, etapak korritzen.

Iaz, Itzulia amaitu ostean, amets bat bete zenuela aitortu zenuen. Zer da zuretzako Euskal Herriko Itzulia?

Amets bat bete nuen bai, zalantzarik gabe. Aurten polita izango da 1 dortsala jaztea. Euskal Herriko Itzuliak asko eman dit niri. Jubeniletan iritsi nintzen herri honetara eta ondo baino hobeto eza gutzen ditut Euskadiko errepideak. Joan zen astean Beasainen bukatzen den etapa ikusi nuen, eta esango dizut amateurretan mila bider ikusitako errepideak direla. Euskal Bizikletan, beste Euskal Herriko Itzuli batzuetan... maitasun edo txera handia diot itzuli honi. Etapa bakan batzuk irabaziak nituen eta podiuma ere zapaldua nuen, baina inoiz ez nintzen gorengo mailara igo. Iaz irabaztea amets bat betetzea izan zen, herri honetan hasitako zirkulua amaitzea bezalako zerbait.

Valverde ez ei dator. Contador, aldiz, bai. Hemen izango dira, era berean, Homer, Mollema, Kloden... ¿Zeintzuk izango dira zaindu beharrekoak?

Denak dira aurkari gogorrak; nazioarteko txirrindulari onenez ari gara hizketan. Munduko hamar onenen artean dauden txirrindulariak dira, eta edozeinek irabaz dezake. Esan duzunetako batzuk irabazi izan dute aurrez eta bakarren batek behin baino gehiagotan ere bai. Atera kontuak!

Non uste duzu erabakiko dela itzulia?

Bosgarren etapan, erlojupekoan. Oso zorrotza da. La Lejana eta Arraten bukatzen diren etapetan diferentziak markatuko dira, eta azken aurriko eguna, batez ere euria egiten badu, izugarri gogorra izango da. Irabazlea erlojupekoan erabakiko da.

Atletismoan txapeldun olimpikoa izatea dagoen handiena da. Txirrindularitza, hala ere, ez dago sentsazio hori. Aldatuko zenuke zure urrea Tourrean lehenengo izatearren?

Gauza bakoitzak bere balioa dauka. Niri Olinpiar Jokoetan irabazteak bizitza aldatu dit. Txirrindularia kirolaria da, eta edozein kirolariren ametsa urrezko medaila lortzea da. Lau urtean behin jokatzen dira Olinpiar Jokoak eta kirolzale guztiak adi-adi egoten dira, eta ez norbere gremio-koak bakarrik. Txirrindularitza Tourra da handiena, baina kirolaren munduan, urrea lortzea da gu denon ametsa. Eta nik etxean daukat urrezko medaila.

Iaz, Itzulia amaitu zenuenean esan bezala, Miguel Madariaga izan da zure aita kirol alorrean. Nola bizi izan duzu Euskaltel taldearen eta Euskadi Fundazioaren arteko banantzea?

Nahiago nuke armonikoagoa izan balitz, lasaiago joan balitz hau dena, zarata gutxiagorekin. Miguel Madariaga nire aita da bai, eta profesionaletara salto egiteko aukera eman izana zor diot. Beti egongo natzai oso eskertua. Era berean, txirrindularitza sustatzeko Euskaltelek orain 16 urtetik egiten diharduen apustua handia da eta ezinbestekoa izan da Euskadik goi mailako talde bat izan dezan. Babesle nahikoa txikia izan arren, txirrindularitza taldeari laguntzeko eta Euskadiren izena lasterketa honetara eramaten lagundu du. Eta bihotzez eskertzekoa da.

PROTAGONISTEN AHOTAN

Aitor Osa eta David Etxebarria bi euskal txirrindulari izan ziren Euskal Herriko Itzuliak Elgoibarren geldialdia egin zuen azkeneko aldiko izarrak, eta aurten ere, protagonista izateko gogoz irtengo dira gure ordezkariak. Lehenengo etaparen, euren taldearen aukeren eta parte hartuko duten gainerako euskal txirrindularien inguruan galdetu diegu.



Haimar Zubeldia Radioschack

Etaparen: "Euskal Herriko itzuliko etapa klasiko bat da: mugitua eta gorabehera askokoa. Nahikoa ondo ezagutzen dut inguru hori, eta taldekideei ere esan diet azkeneko parte, San Migel, ez dela oso-oso gogorra ere, baina erne egon beharko dela, batez ere jaitsieran. Pelotoia asko luzatzen da hor, banako lerroan jaisten da normalean, eta hor asmatzen duenak irabaziko du. Ikusi beharko da zer eguraldi egiten duen ere, eta jendea zer arrisku hartzeko prest dagoen. Azurki eta En-

doia mendateek sorpresan hartuko ditu kanpoko ziklista batzuk, baina etaparen erdialdera egonda, ez dute horrenbesteko garrantziarik izango. Hori bai, sufritu majo sufrituko dugu hor, errepide estuak eta malda handiak direlako". **Taldea:** "[Chris] Horner eta [Andreas] Kloden izango ditugu, azkeneko urteetan garaileen artean izan direnak, eta gure apustua eurek dira. Saiatuko gara horiek egunero aurrean izaten. Azkenean erlojupekoak erabakitzen du dena, baina bai Arrateko etapan eta baita Trapagarangoan ere aurrean egon beharko dugu, aukerekin iristeko". **Faboritoak:** "Ez dakit zeintzuk parte hartuko duten oraindik, baina Samuel, Purito, eta Valverde [Valverde ez da etorriko azkenean] aipatuko nituzke gureez gain". **Zaindu beharreko euskal txirrindulariak:** "Izagirre anaiak oso ondo ibiliko direla uste dut, eta Beñat Intxausti ere indartsu ibiliko da".



Amets Txurruka Caja Rural

“Nik uste dut Endoiatik aurrera gogortuko dela lasterketa. Azurki eta Endoia etapa erdialdera dira, eta ez dut uste hor inork joko duenik, baina desgasterako balioko dute, eta askok sorpresa ere hartuko dute. Eta gero, Azkarate zaharretik jaitsiera azkar egiten bada, jendea atzean lagatzeko ere balio dezake. Hortik aurrera, dena da gora eta behera, eta Etxebarria bitartean pilotatuko da pixkat berriro ere tropela. Erabaki, San Migelen erabakiko da. Goranzkoan ez dut uste alde handirik izango denik, baina jaitsieran... Badakizu San Migel zelakoa den! Euria egiten badu, batez ere, hor erabakiko da”. **Taldea:** “Pedal golpe onean iristen garela uste dut, eta talde politarekin. Gorantz ondo doan jendearekin osatuko dugu taldea, eta gauza nahikoa politak egiteko aukerak izango ditugu. **Faboritoak:** “Urterokoak: Contador, Samuel, Purito... baina bat esatekotan Contador esango nuke, freskoago datorrelako, eta bigarren bat esaten lagatzen badidazu, Horner ere aipatuko nuke. Tirrenon ere egon da Horner, eta zenbat eta gehiago ibili orduan eta gehiago egiten duen txirrindularia da hori”. **Zaindu beharreko euskal txirrindulariak:** “Izagirre anaiak seguru-seguru. Puntu onean daude, eta etxeko lasterketa izanda, seguru ondo ibiliko direla. Haimar ere aurrean ibiliko dela uste dut, eta geuk ere ez genuke atzean gelditu nahi”.



Mikel Astarloza Euskaltel

“Gogorra izango da, eta batez ere, urduria. Lehenengo etapak arrisku berezia izaten du. Oraindik liderrik ez da egoten eta guk, etxean ibilita, ardura handia izango dugu hor. Etapa gogorrenetako bat izango da ziur. Mendate gogorrek jarri dituzte, Azurki eta Endoia adibidez, hankak lehertzeko aproposak, baina nik uste dut San Migeleko jaitsieran erabakiko dela lasterketa. Hortik helmugara sartuko gara, eta ia igoerak baino kalte handiagoa egin dezake jaitsiera horrek”. **Taldea:** “Egia da iazko irabazlea, Samuel, ez dela hain pedal kolpe onean iritsiko Euskal Herriko Itzulira, Giroa prestatu duelako eta horregatik prestakuntza atzeratuago daramalako, baina hala ere, talderik onena eramango dugu, eta helburua etapak irabaztea izango da eta, baita jakina, saillapen nagusian ahalik eta aurreren gelditzea. Presio izugarria izaten dugu. Gure kasua berezia da, herrialdeko taldea delako gurea, eta tropelean denek dakitelako guretzat nahitaezkoa dela ondo ibiltzea. Baina, aldi berean, alde onak ere baditu horrek, eta hori probestu behar dugu”. **Faboritoak:** “Partaidetza punta-puntakoa izango da, eta ez dakit, baina Paris-Nizan, Tirrenon eta Kataluniako Itzulian aurrean ibili diren Valverde [ez dator azkenean], Purito Rodriguez, Wiggin, Nivali eta nazioartean mailarik onenean dauden besteak, jakina. Adibidez: Contador”. **Zaindu beharreko euskal txirrindulariak:** “Euskalteko zortzi taldekideak, eta bereziki Izagirre anaiak, eta baita zoritxarez Euskaltelen ez dauden beste euskal txirrindulari batzuk ere, baina nik taldekideen alde egingo dut”.



Jon Izagirre Euskaltel

“Azurki hori ez dut ezagutzen eta badaukat asmoa ikustera joateko, baina dena den ez zait iruditzen oso erabakigarria izango denik. Beste mendate bat gehiago izango da, indarrak ahitzeko beste bat, baina esango nuke San Migeleko jaitsieran argituko dela zein izango den irabazlea. Jaitsieran egongo dira diferentzia handienak, eta zer esanik ez euria egiten badu. Guretzat etapa gogorra izango da, etxeko taldea izanda ardura guztia guri egozten digutelako gainerako taldeek, eta baita geuk ere bai, jakina. Iaz Samuelek irabazita, gainera... Kontrol lana gure gain utziko dute denek”. **Taldea:** “Samueli begira egongo da gure taldea, eta ehuneko ehunetan egon ez arren, badakigu profesional peto-petoa dela eta hor aurrean egongo dela”. **Faboritoak:** “Ez dakit garbi zeintzuk etorriko diren, baina Contadorek baieztatu du egongo dela eta ez da atzean geldituko”. **Zaindu beharreko euskal txirrindulariak:** [Gainerako guztiek bere izena aipatu dutela aipatu dio kazetariak elkarrizketa hasi aurretik]. “Jaja. Bai? Sasoi onean nago eta Euskal Herriko Itzulia izanda, gauzak ondo egin nahi ditut, baina garbi daukat nire taldeburua Samuel dela eta bere ondoan egongo naizela ahal dudan guztian”.



Beñat Intxausti Moviestar

“Oso urduria izango da. Endoia eta Azurkin adi egon beharko dugu, eta Azkaraten behera hartuko du emozioa lasterketak, baina erabaki, nik uste dut San Migelen behera erabakiko dela”. **Taldea:** “Beste urteetan baino lasaiago nator ni neu. Prestakuntza guztia maiatzean punta-puntan egoteko daukat bideratuta, Giorako, eta denboraldi honetako bigarren itzulia izango da hau niretzat. Hala ere, hau beti da berezia eta ahalegina egingo dut aurrean egoteko. Taldeari dagokionez ezin dizut esan gauza askorik ez daukagulako garbi zeintzuk joango garen, baina saillapen nagusiaren bila joango gara. **Faboritoak:** Contador, Horner, eta Samuel Sanchez behintzat ezingo diegu begirik kendu. **Zaindu beharreko euskal txirrindulariak:** Izagirren anaiak.



Elgoibartik pasata, Baionara bidean

Eman euskara elkari lemapean iritsi zen eguazten iluntzean Korrika Elgoibarrera, eta ongi-etorri beroa egin zioten elgoibartarrek. Herri osoa zeharkatu ostean, Azkoitirako bidea hartu zuten korrikalariak eta dagoeneko, Baionara bidean da Korrika. Hamaika egunez, etenetik gabe, 2.550 kilometro inguru egingo ditu euskararen aldeko martxak.



Sanlo eskubaloï taldea.



Kimetz elkarte.



Haizea Emakume Taldea.



Txankakua Merkatarï Elkarte.



Mauitxa Txaranga.



AEK euskaltegia.



Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak.



Euskadiko Kutxa.



Ikastolako gurasoak.



Ikastolako ikasleak.



Ikastolako langileak.



Haritz Euskal Dantzari Taldea.



Udaleko Euskara eta Kultura Batzordeak.



IMH, Herri Eskola, Haur Eskola, BH Institutua eta MEKA.



EA.



EAJ.



Sortu.



LAB Alcora.



IK4 Ideko.



Danobat.



Gazte Asanblada.



Lagunak Pilota Eskola.



Morkaiko Mendizale Elkarte.



CD Elgoibar.



Korrika Gaztea.



Korrika txikia.



Korrika Shanghain (Txina). Iban Quintana elgoibartarra pankarta eusten.



Korrika Sidneyn (Australian). Jose Antonio Urbietta elgoibartarrak eraman zuen lekukoa.

Otsailean...

JAIOTAKOAK



Sare Orbea Barrenebxea
Otsailak 14
Asier eta Esther



Elene Rodríguez Sanz
Otsailak 4
Jon eta Itziar



Aimar Ondarza Leiaristi
Otsailak 12
Iban eta Maialen



Roke Beitia Albarran
Otsailak 12
Patxi eta Olatz

Bittor Díez Álvarez
Otsailak 1
Roberto eta Laura

Sare Astigarraga Carcedo
Urtarrilak 29
Imanol eta Patricia

Lucía Martín de Jesús
Urtarrilak 30
Oscar eta Lorena

Luken Córdón Arriola
Otsailak 4
Roberto eta Usoa

Markel Elia Leandro
Otsailak 6
Gorka eta Sonia

Sune Ortiz Etxeberria
Otsailak 22
Berex eta Maite

Erika Ruiz Villanueva
Otsailak 20
Jose Antonio eta Cristina

Itxaso Garaizabal Mujika
Otsailak 24
Imanol eta Miren

HILDAKOAK

Jesusa Aranberri Arakistain • 93 urte • Otsailak 3
 Concepcion Zabalo Aristimuño • 94 urte • Otsailak 3
 Juliana Alonso Peñalver • 98 urte • Otsailak 4
 Santiago Díez Pedrosa • 86 urte • Otsailak 5
 Margarita Mugertza Izagirre • 91 urte • Otsailak 6
 Iñaki Saez Etxabe • 50 urte • Otsailak 6
 Isidro Viñaras de Pablo • 76 urte • Otsailak 8
 Julio Urbiola Elosegí • 80 urte • Otsailak 10
 Benita Elkoro-Iribe Gurrutxaga • 91 urte • Otsailak 13
 Rosario Iturria Otamendi • 58 urte • Otsailak 15
 Sebastian Larrañaga Arrizabalaga • 76 urte • Otsailak 15
 Victorino Basterra Sanz • 76 urte • Otsailak 22
 Angelita Iglesias Holgado • 61 urte • Otsailak 24
 Francisco Álvarez Ausin • 81 urte • Otsailak 27

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua **OSOA eta 24 ORDUKOA**

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko zerbitzuak**

**Erietxe zentruetan
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR
 Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 / (Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56
 (Sakelekoa) 635 756 295

Jaiotakoen atalean zure seme-alabaren erretratua jarri nahi baduzu, hilabeteko lehenengo astelehenerako ekarri behar duzu erretratua **BARRENEKO** erredakziora edo barren@elgoibarkoizarra.com helbidera bidali. Jaiotakoen argazkia jartzeagatik Elgoibarko Izzarako bazkideek **3 euro** ordaindu behar dute eta gainontzekoek **4 euro**.

Bai, merezi zaban!

Martxoaren 15ean egin zituen Elgoibarko Izarrak 50 urte, eta jai giroan hasi zituzten urteurreneko ospakizunak



J oan zen asteburuan hasi zituen Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak 50. urteurreneko ospakizunak. Felix Etxeberriak, Jesus Larrañagak eta Sabin Osorok sortu zuten Elgoibarko Izarra 1963ko martxoaren 15ean, eta 50 urte bete diren honetan sortzaileei eta bazkideei esker ona emanez hasi zituzten ospakizuneko ekitaldiak barixakuan. Zapatuan, bestalde, festa giroa izan zen Maalako karpan. Jende asko batu zen egun osoan zehar, eta antolatzaileak pozik agertu dira herritarren erantzunarekin. Bi orrietan bildu ditugu asteburuko zenbait irudi. Argazki gehiago eta bideoak ikusteko: www.elgoibarren.net



Elkarteko sortzaile eta lehendakariak omendu zituzten Herriko Antzokian.



Elkartearen bigarren etapako dinamizatzailea izan da Imanol Larrañaga, eta eskerrak eman zizkioten omenaldi-ekitaldian.



Benito Lertxundiren 'Zenbat gara' abestia kantatuz bukatu zuten ekitaldia.



Bailarako euskara elkarteetako kideak ere etorri ziren lanera.



50 urteotako erretratu erreposoa jarri zuten karpan.



200 lagunetik gora batu ziren 50. urteurreneko bazkarian.



Aiastiako elkartekoek prestatu zuten barixaku gaueko mokadua.



Umeentzako ere izan ziren ekintzak Maalako karpan!



Felix Etxeberria, elkarteko sortzaileetako bat, emaztearekin.



Sabin Osoro, elkarteko sortzaileetako bat senideekin.



Solano eta DZk girotu zuten zapatu gaua.



Bazkalostean erromeria izan zen Ezten giro taldearekin.

178.200 euroko diru-laguntza emango dio Udalak Elgoibarko Izarra kultur elkarteari 2013. urterako

Elkartearen 50. urteurreneko ospakizunetarako 12.000 euro eman ditu Udalak

Elgoibarko Udalak 178.200 euroko diru-laguntza emango dio Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteari 2013rako hainbat proiektu eta egitasmo finantzatzeko. Iazko kopuru berbera emango dio Udalak aurten elkarteari, eta horrez gain, 50. urteurreneko ospakizunak finantzatzeko 12.000 euro emango dizkio. Diru-laguntza hori Udaleko bi sailetatik bideratuko da: Euskara Sailetik 118.200 euro jasoko ditu elkarteak, eta Gazteria Sailetik berriz, 60.000 euro. Elkarteak Udalarekin hitzartutako egitasmoen aurrekontua 459.563,83 eurokoa da, eta Udalak emandako diru-laguntzari esker % 38,78an finantzatu dira egitasmo horiek. Elgoibarko Izarrak eskerrak eman dizkio Udalari eskainitako laguntzarengatik, eta aurrerantzean ere, bide beretik segitzeko asmoa erakutsi du. Izan ere, administrazioaren eta herri ekimenaren arteko elkarlana ezinbestekoa dela uste dute elkarteak kideek, euskara eta euskal kultura sustatzeko.

	AURREKONTUAK	DIRU-LAGUNTZA	AURREKONTUAREN %
EUSKARA BATZORDEAK			
Hedabideak	243.638,73 €	57.600 €	% 23,64
Aisialdia	51.234,56 €	38.100 €	% 74,36
Bestelakoak (Tertuliak, Santa Ageda...)	24.160,49 €	10.500 €	% 43,46
50. urteurreneko ospakizun programa	29.520 €	12.000 €	% 40,65
Guztira	348.553,78 €	118.200 €	% 33,91
GAZTERIA BATZORDEAK			
Abuziamaiak egitasmoa	111.010,05 €	60.000 €	% 54

27 zuhaitz landatu dituzte Zuhaitz Egunean



Martitzenean ospatu zuten Zuhaitz Eguna Herri Eskolako eta Ikastolako umeeek. LH6. mailako 93 umek hartu zuten parte guztira, eta 27 zuhaitz landatu zituzten; hamazazpi haritz eta hamar urki. Azken urteotan bezala, Albitxurira bidean landatu zituzten zuhaitzok. Poliki-poliki ingurune horretako basoa hazten ari da.

Zabaldute Trinitate jaietako artisau ferian izena emateko epea

Maiatzaren 26an egingo dute Trinitate jaietako artisau azoka Lekuederren, 10:00etatik 14:30era. Feria horretan artisauek bakarrik parte hartu ahal izango dute, eta produktuek beraiek egindakoak izan beharko dute. Interesatuak Kultura Sailean eman beharko dute izena apirilaren 5erako.

Ana Zubiaurre Ikastolako ikasleak, aipamen berezia Azkue Literatur Sarietan

Ana Zubiaurre Ikastolako DBH2. mailako ikasleak aipamen berezia jaso du Euskaltzaindiaren Azkue Literatur Sarietan. 'Abestia' izeneko lana aurkeztu zuen Zubiaurrek lehiaketara eta epaimahakideek bere lana argitaratzeko gomendioa egin dute. 11 eta 18 urte bitarteko gazteen artean literaturarako zaletasuna sustatzea da lehiaketaren helburua.

JAIRO BERBEL

Argazkilaria



‘Egunez eguzkia eta gauez izarrak’ izenburuko dokumentala egin du Jairo Berbel elgoibartarrak, Tomas Madinabeitia apaizaren bizimodua jasotzeko. Elgoibarko apaiza izateaz gain, mi-siolari lanetan jardun zuen Madinabeitiak Kongon, eta han eginiko lana erakutsiko du Berbelek Herriko Antzokiko pantaila handian. Gaur izango da estreinaldia, 21:30ean, eta astelehenean bigarren saioa eskainiko du, 20:30etik aurrera. Sarrera 3 eurotan jarri dute, eta biltzen duten dirua Kongora bideratuko dute, Madinabeitiak hasitako lanei segida emateko.

“Tomasi esker gizatiarragoak garela esango nuke”

‘Egunez eguzkia eta gauez izarrak’. Zergatik izenburu hori?

Arrastoa uzten duten horietakoa zen Tomas, eta ezagutzen zituen pertsona guztien bizitza argitzen zuen bere izaerarekin. Gizon zintzoa zen, eta uneoro laguntzeko prest azaltzen zen. Izenburu horrekin jendeari ematen zion argitasun hori islatu nahi izan dut. Pertsonak argitu eta bizitzarako osagai garrantzitsuen ematen zielako: itzaropena.

Zer jaso duzu dokumentalean?

Tomasen bizitza kontatuko dut, bere lehenengo egunetik azkenera arte. Gaztetatik nabarmendu zen Tomas, eta bizimodua ikusteko oso modu positiboa zeukan. Erretratu zaharren bidez ikusiko dugu nolakoa zen, eta ulertuko dugu pertsonak nola iristen garen garen modukoak izatera. Senide eta lagunei egini-ko elkarriketen bidez, detaile txiki batzuekin mundua aldatzeko gai zen haragi eta hezurrezko heroia deskubrituko dugu. Eredutzat hartu beharko genukeen historia da. Justizia eza, gosea eta gaiztakeria bezalako munstroen kontra borroka egiten duen hezur eta haragizko heroia bizimodua da. Hori eta gehiago

ikusiko dugu dokumentalean.

Nola bururatu zitzaizun dokumentala egitea?

Tomas hil zenean itzaropen izpi bat galdu genuen. Nire bizitzako momenturik onenetarikoa izan zen Afrika ezagutzea, eta Tomas izan nuen lagun esperientzia horretan. Berak eraman ninduen eta bizitzaren irakasle moduko bat izan zen niretzat une hartan. Gauza asko zor dizkiot, eta dokumentala eskerrak emateko modu egokia iruditu zitzaidan.

Zein zailtasun izan dituzu dokumentala egiteko?

Urriaren 19an hasi nintzen lanean! Badira hilabete batzuk. Material guztia bildu eta bideo atsegin eta ulerterraza egitea izan da zailena. Tomasi buruz hitz egiteko prest zeuden pertsonak aurkitzea izan da errazena, eta hori da gainera, bideoan nabarmentzen dena. Uste dut lortu dudala Tomasen izateko modua azaltzea. Bideo entretenigarri eta hunkigarria izan da emaitza.

2012ko urriaren 19an hil zen Tomas. Nola gogoratzen duzu egun hura?

Oso egun tristea izan zen, eta heroi bat hil zen eguna bezala gogoratzen dut. Os-

pitalean zegoenetik egunero joaten nintzen bisitan, eta egun hartan ere joatekoa nintzen. Autoko giltzak ez nituen aurkitzen, eta ohikoa baino hamar minutu beranduago irten nintzen etxetik. Ospitalera iritsi nintzenean ez zidaten gelara sartzen utzi, hamar minutu aurretik hila zelako Tomas. Seguru nago ez nituela autoko giltzak kasualitatez galdu. Tomasek ez zuen nahi nola hiltzen zen ikustea, eta bizirik zegoeneko oroitzapena izan nezan nahi zuen. Alai zen, lasaia eta beti esaten zuen gauza guztiek zutela konponbidea. Beti laguntzeko prest zegoen, bai hemen eta baita Kongon ere. Tomasi esker gizatiarragoak garela esango nuke.

Dokumentalarekin biltzen duzun dirua Kongora bideratuko duzu. Zein dira zure asmoak?

Kanseniako umeentzako eskola materiala erosteko bideratuko dut, bereziki. Gu-txi lortu arren, gauza asko egin daitezke Kongon. Tomasen ametsa egi bilakatzen saiatuko naiz: mundu bidezkoago bat denontzat. Herriko Antzokira joaten diren guztiek lagunduko dute horretan. 45 minutuko dokumentala da, erraz ikustekoa, hunkigarria eta gozatzekoa.

Hirugarren postua ziurtatu du Concepto Egile areto futbol taldeak eta horri esker igoera fasea jokatuko du

Bost partida falta dira liga amaitzeko eta lau puntu nahikoa dituzte liga irabazteko

Joan zen asteburuko garaipenarekin saillapen nagusiko hirugarren postua ziurtatuta dauka Concepto Egile areto futbol taldeak, eta Liga txapelketa irabaztea ere esku-eskura dute elgoibartarrek. 2-6 emaitzarekin irabazi zioten San Juan taldeari. Bederatzi partida zeramatzen San Juan taldeak galdu gabe, eta elgoibartarrek bukatu zuten egoera horrekin. Saillapeneko hirugarren postuak, bestalde, Espainiako Kopa txapelketa jokatzeke aukera emango dio taldeari.

Era berean, Txapelketa amaitzeko bost partida falta dira, eta lau punturekin nahikoa daukate Liga irabazteko. Saillapeneko lehenengo postuan daude elgoibartarrak, eta hamabi puntuko alde dute bigarrenarekin. Bihar Olaizaga kiroldegian jokatuko dute 16:00etan, Sala Zaragoza taldearen kontra, eta zaleen babesa eskertuko dute jokalariek. Concepto Egilek historia egiten dihardu: iaz lortu zuten 2B mailara igotzea eta oraindik ez dute partida bakar



bat ere galdu. 18 irabazi eta bat berdindu dute denboraldi honetan. Bigarren B mailako 98 taldeen artean, gainera, golik gutxien jaso duen taldea da.

60 urtetik gorakoentzako kirol saioak hasi dira



Adinekoen artean kirola egiteko ohitura sustatzeko asmoz, 60 urtetik gorakoentzako kirol programa jarri du martxan Udal Kirol Patronatuak, Ongizate Sailarekin eta Osakidetzarekin elkarlanean. Aste honetan egin dute estreinako saioa Mintxetan, eta hogeit lagun batu dira. Hurrengo saioak apirilaren 16an eta 23an izango dira. Apirilaren 16an ibilaldia egingo dute Mintxeta-Sallobente inguruetan eta apirilaren 23an, bidegorrian zehar.

Beñat Bergaretxek irabazi du Oñatiko igeriketa proba, 200 metroko estilo librean



Joan zen asteen jokatu zen Oñatiko igerilekuan Kirol Zehaztasun Ligako laugarren jardunaldia, eta Elgoibarko Igeriketa taldekoek ere hartu zuten parte. Nabarmenezkoa da 200 metroko estilo librean Beñat Bergaretxek irabazi zuela proba 2:49:81 denborarekin, eta hori izan zen, gainera, Gipuzkoako denborarik onena.

Udaberri txapelketako finala jokatuko du Lagunak taldeko bikoteak

Lagunak Taldeko pala bikotea Udaberri txapelketako finalera iritsi da. Aginagan jokatuko dute finala Usurbilgo bikotearen kontra gaur, 19:30etik aurrera. Berguak eta Etxeberriak jokatuko dute finala, Mancebo lesionatu egin delako.

Elgoibarko Lagun Taldea Saria, apirilaren 7an

Apirilaren 7an jokatuko dute kadete mailako Lagun Taldea Saria txirrundulari proba. Kalegoen plaza-tik irtengo dira partaideak 16:00etan, eta helmuga Santa Klaran izango dute. 52 kilometroko lasterketa izango da.

Liga txapelketa irabazi du CD Elgoibarko nesken taldeak

Euskal Ligan jokatu dute datorren denboraldian

Eskura zeukan Liga Txapelketa CD Elgoibarko nesken taldeak, eta ez du hutsik egin. Azken bi asteotan bigarren eta hirugarren sailkatuen kontra jokatu dute, eta bi partidak irabazi dituzte. Orain dela hamabost egun bigarren sailkatua hartu zuten etxean, eta 4-1 irabazi zuten. Joan zen asteen, berriz, Mutriku jokatu zuten sailkapeneko hirugarrenaren kon-



tra, eta galtzen hasi baziren ere, 1 eta 2ko emaitzaz garaitu zuten Mutriku taldea. Liga txapelketa amaitzeko partida bat falta bada ere, matematikoki lortu dute Liga irabaztea.

Horri eskez, mailaz igokoa dira eta datorren denboraldian Euskal Ligan jokatu dute. CD Elgoibarko zuzendaritzak nesken taldea zoriondu du aurten egin dako denboraldiagatik.

Liga irabazteko partida garrantzitsua jokatuko du Gabaz eskubaloit taldeak domekan

Gabaz senior mutilen taldeak partida garrantzitsua jokatu du domekan Olai-zaga kiroldegian, Zarauzko taldearen kontra. Elgoibartarrak lider dira, eta hiru puntuko aldea dute Zarauzko taldearekin. Lau partida falta dira liga amaitzeko, eta domekakoa partida erabakigarria izango da. 10:30ean hasiko da partida, eta zaleen babesa eskatu du Sanlok.

San Rokeko bolatokian hasiko dute bihar Gipuzkoako Hiru Txirlo txapelketa

Bihar hasiko da Gipuzkoako Hiru Txirlo txapelketa, San Rokeko bolatokian, eta urtero legez, Aiastiako bolariak izango dira gure ordezkariak. Bola saioa 17:00etan hasiko da. Aurtengo txapelketak 11 jaurtialdi izango ditu, eta ekainaren 8an amaituko da Azpeitiko Garmendipe bolatokian.

Benjaminentzat hainbat eskubaloit ekintza

Martxoaren 28tik apirilaren 1erako hainbat ekintza antolatu ditu Sanlok, 2002tik 2004ra bitartean jaiotako gaztetxoentzat. Eguen santu egunean Eskubaloit Eskolako entrenatzaileekin egingo dute entrenamendua; ostiral santuan haur eta gurasoentzako entrenamendu berezia prestatu dute, eta hurrengo egunean euren arteko partidak jokatu dituzte. Apirilaren 1ean berriz ere Eskubaloit Eskolako entrenatzaileekin entrenatuko dira. Ekintza guztiak doan izango dira, baina interesatuek hilaren 25erako eman beharko dute izena, helbide honetara idatzita: sanlolatxo@gmail.com

EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi 1 – Zamudio 1 (3. maila)
Elgoibar 5 – Amaiak Bat 3 (1. erreg.)
Mutriku 1 – Elgoibar 2 (Neskek)
Elgoibar 1 – Lazkao 1 (Jub.)
Elgoibar 0 – Amaiak Bat 2 (Kad. A)
Elgoibar 1 – Ilintxa 1 (Kad. B)
Oriko 1 – Elgoibar 2 (Ohorezko inf.)
Aloña Mendi 2 – Elgoibar 3 (Inf. Txiki)
Bergara 6 – Elgoibar 2 (Aleb.)

ARETO FUTBOLA

San Juan 2 – Concepto Egile 6 (2B)

ESKUBALOIA

Alcorta Elg. 20 – Urdaneta 30 (Sen. mut.)
Tecnifuelle Elg. 32 – Basaur 23 (Sen. neskek)
Pulpo 25 – Gabaz Elg. 29 (Sen. mut.)
Zuazo 21 – Lauko Elg. 26 (Jub. neskek)
Ordizia 31 – Beristain Elg. 38 (Jub. mut.)
Zuazo 30 – Astigarraga Elg. 22 (Kad. neskek)
Ikus Elg. 17 – Ereintza 18 (Kad. neskek)
Txariduna Elg. 35 – Ereintza 31 (Kad. mut.)
Bergara 23 – Pneumax Elg. 14 (Kad. mut.)
Bankoa Elg. 21 – Urnieta 12 (Inf. mut.)
Arrasate 11 – Deca Elg. 20 (Inf. mut.)
Murgil Elg. 30 – Legazpi 14 (Inf. neskek)
Cometel Elg. 14 – Zarautz 11 (Inf. neskek)
Aterpe Elg. 14 – Legazpi 18 (Inf. neskek)
Bergara 9 – Alkideba Elg. 24 (Aleb. mut.)

ESKU PILOTA

Debarroko Txapelketa

Lagunak 17 – Arrasate 22 (Nag.)

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 23

16:00 Concepto Egile – Sala Zaragoza (2B)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 23

12:00 Elgoibar – Zarautz (Inf. Txiki)

16:00 Elgoibar – Lengokoak (Kad. B)

Domeka, 24

11:00 Elgoibar – Ilintxa (Aleb.)

12:30 Elgoibar – Aloña Mendi (Aleb.)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 23

10:00 Cometel Elg. – Aloña Mendi (Inf. neskek)

13:00 Aterpe Elg. – Zarautz (Inf. neskek)

18:00 Pneumax Elg. – Urola (Kad. mut.)

19:30 Beristain Elg. – Tolosa (Jub. mut.)

Domeka, 24

10:30 Gabaz Elg. – Amenabar Zatz (Sen. mut.)



• Gure udaberriko larrosak dagoeneko urtetxo bat! Zorionak, **June**, *Piccolo fiorellino*, familiakoen partez.



• Zorionak, **Joxepa**, martxoaren 29an 85 urte egingo dituzulako. Lagunen partez.



• Zorionak, **guapa**, zure bosgarren urtebetzean. Patxo potolo bat etxeko guztion partez. Ondo pasa!



• Zorionak, **Nagore**, neska handi! Bihar zure bigarren urtebetetzea! Muxuak etxekoen partez, eta bereziki, Eneritzen partez.



• Zorionak, **Haritz**, bederatzi urte bete dituzulako. Patxo handi-handi bat, etxekoen partez.



• Zorionak, **Harriet**, eta patxo handi bat, bereziki, Intzaren, Malenen, Haritzen eta aittittamamen partez.



• Zorionak, **Jon**, datorren astelehenean 6 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat etxekoen partez.



• Zorionak, **rizitos**, hilaren 25ean 10 urte egingo dituzulako. Maite zaitugu!



• Zorionak, **Unax**, asteartean 8 urte! Ondo pasa eta muxu handi bat etxeko guztion partez, eta bereziki, Enararen partez.



• Zorionak, **Beñat**, larunbatean 8 urte egingo dituzulako. Muxu bat etxekoen partez, eta bereziki, lbairren partez.



• Zorionak, **Elsa**, martxoaren 31n zure eguna delako. Etxekoen partez, muxu erraldoia.



• Zorionak, **Kepal**, Gure etxeko txikixa handitzen ari da! 4 urte bete zenittuen astelehena! Muxu handi bat, etxekoen partez.



• Zorionak, **Iban eta Magali**, etxekoen eta lagunenen partez.



• Zorionak, **Mala**, zure zazpigarren urtebetzean. Familiakoen, eta bereziki, Gorkaren partez.


AGURREN ATALEKO PREZIOAK:

Erretratu bakarreko agurra 4€. Argazki bikoitza 6€, hirukoitza 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:


Erretratu bakarreko agurra 3 €. Argazki bikoitza 5€, hirukoitza: 7€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Argazkiak **eguztzen eguerdia** baino lehen ekarri behar dira **BARRENEKO** bulegora, 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.



Martxoak 25, astelehena, sukaldaritza tailerra ludotekan "koloretako gailletak" arratsaldeko 16:00etatik 19:00etara.

Martxoak 23 larunbata 11:00etan gurasoentzat kafe tertulia gaztelekuan. Arratsaldean gaztelekua itxita egongo da.



OUTLET DENDA!

Laster zabalduko dute!

Modas Ferpi eta Luvik zapata dendak San Bartolome 3an.

APIRILAREN 15ETIK AURRERA

Ferpi moda

Luvik zapata denda

22 barixakua

Hitzaldia

19:00 'Garapen pertsonala eta autosalbazioa'

Pilar Burgoa espezialistak eskainiko du, Kultur Etxeko sotoan.

Musika

18:30 Kale Kantariak

Entsegua Kultur Etxeko sotoan.

Bideo forum

21:30 'Pago justo'

Loredi Salegi izango da hizlaria. Kultur Etxean.

Dokumentala

21:30 'De día el sol, de noche, las estrellas'

Jairo Berbelek Tomas Madinabeitiaren bizitzari buruzko dokumentala eskainiko du Herriko Antzokian. Gaztelaniaz.

23 zapatua

Kafe tertulia

11:00 Nerabeentzako udako eskaintza

Gurasoentzako saioa antolatute, Gaztelekuan.

Aisialdia

11:30 Udaberri festa

Atxutxiamaiak antolatuta, Kalegoen plazan.

25 astelehena

Hitzaldia

17:00 'Argiaren eta arrazoiaren garaia'

Carmen Agirrek emango du, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Dokumentala

20:30 'De día el sol, de noche, las estrellas'

Jairo Berbelek Tomas Madinabeitiaren bizitzari buruzko dokumentala eskainiko du Herriko Antzokian. Gaztelaniaz.

26 martitzena

Liburu irakurketa

18:00 'Los cuadernos de Don Rigoberto'

Vargas Llosaren liburua irakurriko dute, Udal Liburutegian.

30 zapatua

Feria

9:00 Azken zapatuko feria

Kalebarren plazan eta Aita Agirre plazan.

1 astelehena

Euskal Herriko Itzulia

12:00 Lehen etapa

Kalegoen plazan hasiko da Euskal Herriko Itzulia. Etapa amaiera San Frantzisko iturri inguruan izango da, 17:00ak aldera.

2 martitzena

Euskal Herriko Itzulia

12:00 Bigarren etapa

Kalegoen plazan hasiko da Euskal Herriko Itzuliko bigarren etapa.

ORDU ALDAKETA, DOMEKAN

Asteburu honetan udako ordutegian sartuko gara, eta ordua aldatu beharko da. Hortaz, domekako 2:00etan, ordubetez aurreratu beharko da ordularia.



ZINEA

'Mama'

23, zapatua: 19:00/22:15
24, domeka: 19:00
25, astelehena: 21:30

'Rompe Ralph'

24, domeka: 16:30

'El lado bueno de las cosas'

28, eguena: 19:00/22:15
29, barixakua: 19:00

'El cuarteto'

30, zapatua: 19:00/22:15
31, domeka: 19:00/22:15
1, astelehena: 19:00/22:15

'Los cachorros y el código de Marco Polo'

31, domeka: 16:30

OKINDEGIAK

24 domeka:
IBARRENEA

28 eguena:
EIZAGIRRE

29 Barixakua:
FOTERO

30 Zapatua:
IBARRENEA

31 Domeka:
EIZAGIRRE

1 Astelehena:
FOTERO

BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez

9:00 - 22:00

22 Zabaleta
23 Barrenetxea
24 Barrenetxea
25 Ibañez
26 Garitaonandia
27 Fernandez
28 Garitaonandia
29 Garitaonandia

Gauetz

22:00 - 9:00

Etxeberria
Barrenetxea
Barrenetxea
Yudego
Garitaonandia
Garitaonandia
Garitaonandia
Garitaonandia

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta

Kalebarren, 9
(Soraluze)
Tel: 943 751 384

Egunez

9:00 - 22:00

30 Garitaonandia
31 Zabaleta
1 Zabaleta
2 Ibañez
3 Garitaonandia
4 Etxeberria
5 Fernandez

Gauetz

22:00 - 9:00

Barrenetxea
Barrenetxea
Barrenetxea
Etxeberria
Garitaonandia
Etxeberria
Garitaonandia



ARDANTZABIDE

Zumaia

Etxebizitza berriak preziorik onenean

Zumaiaiko Ardantzabiden prezio mugatuko 32 etxebizitzetako bat nahi baduzu, zoaz Udaletxera eta izena eman.

Epea: martxoaren 11tik apirilaren 19ra.

Argibide gehiago hemen:

www.ardantzabide.es



Zumaia Udalak

943 31 68 68

www.sukia.com



Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.



TERRAZA HANDIAK

3 logelako etxeak
garaje eta trastelekudunak
234.278€ + baz.


Iraili aurreko merkataritza-erreponean. Informazio hau alda dezake arazo tekniko edo komertzialengatik. Interesdunen sikura dago gure bulegoetan iragarri honetan ez dagoen gainerako informazio gutxi, S15/80 Enago Delentzuek, apirilaren 23koak, erabaten dute.

UDABERRI FESTA

MARTXOAK 23, ZAPATUA

HH2-LH2

11:30ean kalegoen Plazan



elgoibar

ELGOIBARKO UDALA